


AURKEZPENA

Kaixo, gu LUB taldea gara, eta gure izenak Laura, Beñat, Unai eta Xabat dira. Urretxu-Zumarraga Ikastola lehenengo batxillergoko ikasleak gara eta *Start Innova* proiektuan parte hartu dugu.

2021eko otsaileko egun euritsu eta bortitz batean hasi zen gure proiektua. Mendira igotzen ari ginen bitartean, gure albotik pasatzen ziren ibilgaiuetan jartzen genuen begia, eta horietako batean elbarri bat ikusi genuen, bere *handbike-ean*. Sufrimendu aurpegia zeraman, eta indarra egitea kostatzen zitzaiola ikus genezakeen. Bera bezalako jendeari erraztasuna ezartzea pentsatu genuen, sufrimendu gehiegi zeramala uste genuelako.



Bizikleta hori eskuz pedaleatzekoa zen eta guri txirrindu hori elektrikoa bihurtzea bururatu zitzaigun, modu honetan elbarriari erraztasuna eta erosotasuna ematen diogu eta sufritzeari utziko dio.

Beraz, gure proiektuarekin gizartearen sektore txiki horri lagundu nahi diogu. Gizartearen parte hori alde batera utzita dagoela dirudielako.